

HELDUEN PLAZARATZEA

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa

Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren historia 1958an hasi zen. Gerra aurretik sariketa bi antolatu ziren Bizkaian: 1929an, Mungian; eta 1930ean, Getxon.

1958an hasi eta 1966ra bitartean Bizkaiko zazpi txapelketa antolatu ziren Euskaltzaindiaren eskutik. Baina 21 urte pasatu ziren, hurrengo Bizkaiko Txapelketa egiteko, 1987an antolatu zen. Bizkaiko Bertsozale Elkartea bera, 1983an sortu zen (Euskal Herrikoa, 1987an).



2000. urtera arte Araba-Bizkaikoa izan zen Txapelketa. Urte horretatik aurrera, arabarrek euren bideari ekin zioten, eta 34 urteren ostean, berriro ere Bizkaiko Txapelketa antolatu zen.

Gaur egun, urte birik behin antolatzen da Bizkaiko Bertsolari Txapelketa. Informazio historikoa, [lotura honetan](#).

- **Helburu nagusiak:**

- Bertsozaintzaren oinarria finkatu eta garatzea.
- Bertsolarietako euren bertsokeran garatzeko aukera eman gura die Txapelketak.
- Txapelketak baliagarria izan behar du bertsolarietako plazak eskaintzeko: leku, bertsozale eta entzule desberdinak edukitzeko.
- Txapelketak ematen duen indarraldia aprobetxatu, aurrera begira ere baliagarria izan dadin.
- Bertsozaleak erakartzea.
- Talde teknikoak hobetu eta sendotzea.
- Txapelketarekin komunitate euskaldunari eta euskal kulturagintzari ekarpena egin nahi zaio: euskarazko sorkuntza kalitatezkoa eta eredugarria.
- Txapelketa jendarte anitzaren isla izateko ahalegina ere egingo da: genero, maila sozioekonomiko, adin, ideologia eta jatorri denak islatuta egongo diren Txapelketa antolatzeke ahalegina egingo du Elkartek.
- Bizkaiko bertsolaritza azalerratea.
- Bertsozale Elkarteen lana jendarteratea.

Egitasmo honek atal propioa du web gunean. Ikusi, [hemen](#).

Taldekakoa

Bizkaiko Bertsozale Elkartek Bizkaiko bertsolaritzaren ekosistema osoa, eskualdez eskualde, eta etenik barik elikatzeko helburua dauka. Baita, bertsozaren oinarria motibatu, finkatu eta garatzea ere.

Helburu horri erantzuten jarraitzeko, 2017an lehenengoz egin zen Bizkaiko Taldekakoa. Egitasmo honen maiztasuna urte birik behingoa da.

Taldekako Txapelketaren bitartez oinarrian eragin gura da, hau da, bertso eskolak eta eskualdeak indartu gura dira. Horretarako, gune ludiko bat eskaini gura du Elkartek. Taldekako txapelketa giro informalean eta jai-giroan gauzatzea da helburua. Batez ere, bertsolari hasi berriei plazarako bidea erraztea, eta ohiko Txapelketan dagoeneko parte hartzeko motibaziorik ez dutenei beste aukera bat eskaintzea. Horrez gain, antolatzaile, epaile eta gai-jartzaile berrien sorrera ere bultzatuko da. Eta zelan ez, eskualdeen arteko harremana sendotzea.

Egitasmo honek atal propioa du web gunean. Begiratu, [hemen](#).



INFORMAZIO GEHIAGO

Bizkaiko Bertsozale Elkartea

Zabale kalea 9, atzea

48200 Durango

Tel: 946812711

E-posta: bizkaia.administrazioa@bertsozale.eus